

Galtzaundi

Tolosaldeko Herri Aldizkaria

12/12/10 | 375



Txomin Garmendia eta Mikel Mazkaran



Ikasleen txokoa: Ahora



Ainara Azpiazu, Galtzako miketako irabazlea



Koxk!: Amaia Etxetxipia

Alegiko gaztetxea:
Mende laurdena
zutik, bizirik eta
bibala**bir**jen



Joxemari Iturralderekin solasean

Zerk sortu du krisia? Lehentasuna etekin ekonomikoak metatzeari ematea, ez pertsonen bizitzari eta zainketari.

#EgitekoAsko

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Foru Plana



berdintasuna**
egiteko asko
www.berdintasuna.tv

SUPEREKO

Zerbitzua eta kalitatea

*Zure Tolosaldeako Super-a,
orain OnLine*



<http://www.supereko.net>

Erosketak etxera eramango dizkizugu
Eskerrik Asko

843 17 000000



mó
BETAURREKO
PROGRESIBOAK

50% desk.
lente guztietan

Goi mailakoak • Islen kontrako kristalak • Graduazio Guztiak

Gabonetan, izarrek bezain distiratsu.

Kontsulta fardatu optikari, kargatuaren esanagatik. Armaria erosi behar da promozio sartzeko. Ezin da printu beste promozio batzuekin.

San Frantzisko, 23 • Tel. 943 69 84 70 • TOLOSA

MULTIOPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan



Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.
Helbidea: Nafarroa etorbidea,
6-behea.
20400 Tolosa (Gipuzkoa)
Telefonia: 943 655 004
Faxa: 943 654 983
e-posta: erredakzioa@galtzaundi.com
Webgunea: www.galtzaundi.com
Koordinaioa: Naiara Roldán de Aránguiz.
Erredakzio taldea: Felix Aiestaran, Igor Mujika

Kolaboratzaileak: Joseba Antxustegietxarte, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustín Arrieta, Antton Izagirre, Manex Izagirre, Ibon Artola, Unai Igartua, May Gorostiaga, Artubi elkarte, Bilgune Feminista, Amaia Etxetxipia, Ione Gorostazu, Josu Iztueta, Txarli Gesteira, Aritz Larreta, Begoña Aristi eta Zigor Agirrezabala

Publizitatea: Amaia Doyague
Banatzaileak: Olatz Garmendia
Juankar Arregi
Zuzentzailea: Nora Olano
Maketazioa: Galtzaundi
Diseinua: Zigor Agirrezabala
GOIKK
Azala: Galtzaundi
Inprimategia: Antza.
Tirada: 4.500 ale
Lege gordailua: SS-906/91
Frankeo Itundua: 37/94

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri hauetako denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezket, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSAKO
UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

kutxa gizarte ekintza

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalen eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.

Galtzaundin azaldutako iragarleek diruz lagundu dute argitalpena.



Erreportaia: Alegiko gaztetxea

Mende laurdena bete du Alegiko Gaztetxeak. 25 urtetan zehar jende askok egindako lanari esker jarraitzen du bizirik gaur egun. Urte horien guztien historiaren istorio izan nahi du kontakizun honek. Gaztetxeak berak kontatuta dago eta elkarrizketak eta pertsonaiak asmatuak dira.

8-11. orrialdeak

Duela hogeita hamar urte inguru, etorkizun berri baten ilusioaz borrokatzen zen demokrazia faltako garai ilun hartan, Euskal Herriko metropoli bakarra den industriaren izerdiaz goritutako orduko Bilbo gris, kutsatu eta erdaldunean, literaturak bildu zituen, Pott Bandaren inguruan, gaur egun euskal literatura eta musikan puntako sortzaileak diren lagunak: Joseba Sarrionaindia, Ruper Ordorika, Bernardo Atxaga, Jon Juaristi eta Joxemari Iturralde.

Elkarrizketa: Joxemari Iturralde

14-17 orrialdeak



Iritziaren leihoa: Txomin Garmendia eta Mikel Mazkarian

4-5



Ikasleen txokoa: Ahora

6



Ainara Azpiazu, Galtakomikeko irabazlea

12-13



Koxk!: Amaia Etxetxipia

17

Berri samiña eta galdera bat



Txomin Garmendia
Bertsolaria

Euskalerrian ere, izan dira samiñak eta oietako baten aipamenak egin nai nituzke; aspaldikoak diran arren. 1926'ko azaroaren 14'an Beizamako Gorosagasti basarrian, berak bakarrik bizi ziran Bibiana Okariz, 66 urtekoa eta bere alaba Maria Juana Odriozola, 27 urtekoa, ilda aurkitu zitun Tolosako Zeru Txiki tabernan neskame zegon Jazinta Odriozola beste alabak.

Urte artako azaroaren 14'a igandea zanez, Tolosako neska-me au amabiak aldera joan zan baserrira, ama eta aizpa bisita-tzera.

Atea erdi irekita zegoan. Barrura sartu eta izututa geratu zan: aizpa, eskallera barrenean zegoan ankaz gora, bular aldea ebakita, eta sukaldea odolez betea. Ia bere onetik aterata, oiuka asi omen zan amari deika, eta iñork erantzuten ez.

Orduan gertuena zegon basarria abiatu omen zan: Garagar-

tzara. Baiña irureun bat metrora, bere ama ilda billatu zen. Buruz bera omen zegon, eta bizkarrean zeuzkan zauriak.

Orduan, amaren gaiñetik ez pasatzeagatik, berak esan zuanez, Txapartegi basarrrira, urrutiago egon arren, joan omen zan, ikusi zunaren berri negargarria ematera.

"Kanel", etxeko txakurra, alaba illaren ondoan omen zegon; eta parol bat amaren ondoan.

Aita aspaldi illa omen zan, eta bi seme Ameriketara joanak

garai artan asko bezela, dirua irabazi eta soldaduska ez egitearren. Pentsatzekoa da, anai oiek etxeko berri jakin zutenean ere, etzutela etortzerik izango soldadu igesi joan ziran ezkerro eta desertore zaudenez. Iñoiz etorri ziran berririk ere ez degu. Again, noizbait etorriko ziran.

Ondoren artan, probintziko eta urrutiagoan ere bai, izketa nagusia Beizamako gertakari ori izango zan; iritzi pranko ere bai noski, lapurreta tarteko zala, baiña Gorosagasti basarri pobrea omen zen eta maiztarrak, eta nagusiari 1.200 pezeta zor omen zizkioten.

Batzuk esan zutenez, txekorra saldu berria zuten aren diru-billa joango zirala; baiña diru ori Tolosako bankuren batean sartua omen zuten.

Inguruko eta abar, jendea pranko lotu eta espetxean eduki arren etzan iltzaillean arrastorik azaltzen; denbora mordo bat egondakoak ere bai, gastu eder-rak egiñez. Bai omen ziran esandakoak: "Ni bizi naizela iltzaille ori ez ote da azalduko?". Ordurako illak omen ziren ordea.

Ilketa orretatik amazazpi urtera (eriotzako ordua etorri ari ere), konpesatu omen zun errudunak, bera izan zala ilketak egin zituana.

Nere galdera iñork erantzun nai balit: iltzaille ori, damutu eta konpesatu zalako, zerura joango zala pentsatzekoa da. Eta ama-alaba aiek, pekatuak izan zezakean noski, eta konpesatzeko egokierarik izan etzutelako inpernura?

Oarra: berririk geienak, Bizente Barandiaranen Auspoaren 209'garren liburutik jaso ditut.

Giza eskubideak: Etxekoak lehenengo?

Baina eskubide unibertsalak atzerritartasunaren galbahetik pasaz gero, bere unibertsaltasuna galtzen dute eta 'berta-koentzako' eskubide eta 'kan-pokoentzako' betebeharraren banatzen dira. Azken honi dagokionez, SOS Arrazakerian bereziki kezkatzen gaitu osasun publikoa eskuratzeko eskubidean eman den atzerapausoak eta horrek izan duen eragin eta kaltean egoera administratibo irregularrean dauden milaka lagunengan. Giza eskubideen merkantilizazioak guztiok ahulagoak bilakatzen gaitu. Gaur, egoera irregularrean dagoen etorkinari ukatzen diogu oinarritzko eskubidea den osasun arreta. Eta bihar?

2012 hildako batekin hasi zen. Urtarrilaren seian Bartze-lonako Zona Francako Atzerriarrentzako Internamendu Zentroan kanporatua izateko zain zegoen Gineako gazte bat zendu zen. Jarraian, irailean Espainiako gobernuak, Isla de Tierran zeuden 73 etorkinen kanporatze kolektiboa egiten duenean, gai horri buruz dagoen espainiar legedia eta nazioarteko itunak urratuko ditu eta urtea itxiko dute, oraingoz, Espainian etxebizitza erosten duenari erresidentzia baimena emango diotenaren iragarpenarekin.

Kolektibo ahulenak arazo bezala hartu eta tratatzen ari diren gizarteak, geroz eta gehiago pobrezia kriminalizatzen ari den jendarte zatituagoa sortu eta elikatzen ari da. Lehentasun nazionalaren diskurtsoak zentzu berria hartzen ari dira eta aurrezkiaren esperoan au-



Mikel Mazkian
SOS Arrazakeria

1948ko abenduaren 10ean Nazio Batuek onartu eta izenpetu zuten Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala izan zen gizaki guztiek, oinarritzko askatasun eta eskubideak dituztela aitortzen zuen lehen agiria eta gaur ere guztiz indarrean dagoen dokumentua izaten jarraitzen du: giza duintasunaren oinarritzko balioak, diskriminazio eza, berdintasuna, zuzentasuna eta unibertsaltasuna pertsona guztiei dagokiela, edonon eta edonoiz dioena.

rreiritzi zaharrak berreskuratzen ari dira.

Sistema kapitalistaren krisialdi testuinguru honetan eta geroz eta sakonagoa den oinarritzko eskubideen galeraren aurrean, pertsonaren izaerari dagokion hiritartasun unibertsala aldarrikatzea ezinbestekoa da, jaiolokura, egoera politiko edo ekonomikoari lotzen zaien legetatik at egongo dena.

Giza eskubideak errespetatzen ez dituen jendarteak,

gaixorik dagoen jendarteak. Baliabideak murrizten badoaz eta beldurra nagusitzen bada, immigrazioak gure ga-beziak agerian jartzen ditu. Azken finean gure etorkinei ematen diegun tratua, gure jendarteak arautzen duten oinarri etikoen neurria erakusten baitigu. Etorkin edo soilki desberdina denari gorrotoa ez litzaiguke beste baten arazoa iruditu beharko; gaur eurak dira ... eta bihar? 

Ahora



Laskorain Ikastola DBH 4

Joan den azaroaren 13an malkoak, irriak, bihotzak, begiak, zentzu guztiak ziren esna. Tolosako Leidor aretoa txiki geratu zen. Haurrak, gazteak, gurasoak, irakasleak, aiton-amonak.... ikus-entzule zabala bezain anitza bildu zen. Leloa eta logoaren aurkezpen ekitaldiaren harira, guztiak jarri ziren dantzan, eta baita geure hizkuntza bera ere. Hori baita erronka, euskara ahora eramatea, dantzan jartzea, bera protagonista bihurtzea.

Horretarako, abenduaren 3a bezalako egun gehiago behar dira. Euskararen alde ez baita urteko egun honetan bakarrik egin behar, urte

osoan zehar landu eta bizi behar baita hizkuntza bat. Horren adibide izan da astelehen honetan Laskorain ikastolan landu genuen fes-

ta. Bertan euskara sustatzeaz gain AHORA! Leloarekin mosaiko erraldoia osatu genuen txistorra eta ikastolako txarangaz alaiturik. Kilometroetako ospakizunaz gain, beste hainbat ekitaldi ere antolatu ziren euskararen eguna ospatzeko, adibidez, Batx.1eko ikasleak ipuinak irakurtzen aritu ziren, eta DBHko hainbat ikasle bunbuiloak egiten aritu zen "badu bada" ekimena aitzakia. 520 ikasle elkartu ginen AHORA mosaikoa osatzeko, benetan ikaragarria zein liluragarria izan zen. Horrelako ekitaldiek euskara aurrera eramatera bultzatzen dute.

Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako dakitenek hitz egiten ez dutelako baizik. Horregatik saiatu behar dugu denon artean euskara bezalako hizkuntza bat ez galtzen! Merezki duelako, geurea delako, maite dugulako, euskararik gabeko Euskal Herri-rik ez dagoelako, ez eta euskararik gabeko euskaldunik!!

Haurrekin euskara, twitterrean euskara, facebook-ean euskara, tuentian euskara, ligatzerakoan euskara, gelan euskara, patioan euskara, lagunekin euskara, kalean euskara, LEKU GUZTIETAN EUSKARA! Ez soilik buruan edo bihotzean, baita ere ahoan, beraz, egizu; eramazu euskara AHORA.

Irakurle Taldea: Urtarrileko tertulia

Eguna: urtarrilak 10, osteguna
Ordua: 19.30

Lekua: Tolosako Kultur Etxea

Irakurri beharreko liburua:
"Aulki bat
elurretan"
Uxue Alberdi bertan izango da

zazpitaundi 375
ko abenduak 10

Euskaraz Bizi! Eguna irudietan



Baserriko produktu naturalak
Mahala baserria • LEABURU
Tel.: 943 673 499



Osagaiak
Desarroiak
Instalakuntzak

BUDARI KALEA 15-BEHEA TEL.: 943 650 199
TOLOSA (GIPUZKOA) FAXA: 943 653 916



Karga eta goi lanetarako grua

www.igogrua.com
Mobil zkia. 670 67 24 62

enpresa katalogoak
aldizkariak
logotipoak
liburuak
publizitate komertziala
kartelak
egutegiak
bannerrak

antza
komunikazio grafikoa

Zirkuitu Ibilbidea, 2 / 2. pabiloia • 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)
Tel.: 943 370 738 / Faxe: 943 372 226 • info@antza.com • www.antza.com

Arteka

ESKULANAK

Nafarroa etorbidea, 10
TOLOSA
Tel.: 943 655 577



Arostegieta kalea, 2 - Tolosa

1+9+8 ALEGIA

Mende laurdena zutik,

8

Mende laurdena bete du Alegiko Gaztetxeak. 25 urtetan zehar jende askok egindako lanari esker jarraitzen du bizirik gaur egun. Urte horien guztien historiaren istorio izan nahi du kontakizun honek. Gaztetxeak berak kontatuta dago eta elkarrizketak eta pertsonaiak asmatuak dira.

Julen Goikoetxea eta Txarli Gesteira

"Tontokalen egoten dira. Gazte asko langabezian daude eta beste batzuk ikasten ari dira. Ez daukate dirurik tabernaz taberna ibiltzeko. Negua ere gainean da eta hotz ederra pasatzeko daude horrela jarraitzen badute. 1987ko abenduko egun hotz bat da. Tontokalen egoten diren horietako batzuk aldapan gora datoz. Alboko ateetako bat bota eta aspaldian bizi izan ez nuen sentazio bat bizitzeko aukera izan dut. Jendea ikusi dut. Denbora neraman hutsik, bakarrik eta tristurak erabat jota nengoen. Gazte horiek ideia argi batekin etorri dira. Beraiek ego-

teko eta ekintza ezberdinak burutzeko leku bat nahi dute. Kultura aldetik dagoen hutsunea betetzeko eta modu autogestionatuan ekimenak burutzeko gogoia dute. Horiek antolatzeko eta burutzeko bildu dira eta bilgune modura, geltokiko biltegi zaharrera etorri dira. Txomin eta Lorea dira lehen egun honetan etorri direnetako bi. Denborarik galdu gabe, horma guztiak karez eta ateak beltzez pintatzen hasi dira. Zaharkituta eta utzita nengoen eta orain berriz osasunez hobeto egoteaz gain, bizipoza ere badaukat. Gazte hauek, duten ilusioa eta gogoia kutsatu didate eta biltegi zaharra gaztetxe bihurtu da."

- Gaztetxea daukagula ospatzeko kontzerturen bat egin beharko diagu ezta, Txomin?

- Bai Lorea, ez dun ideia txarra. Ea talderen batekin hitz egiten dinagun eta lehen festa hori antolatzen dinagun.

"Esan eta egin. 1988. urteko lehen egunetako batean egin zen lehenengo kontzertua. Zein taldek jo zuen esatea ordea ez da erraza. Batzuk diote Michael

+7 = 1987 = 2012 25 URTE

40 GAZTETXEA

Zutik, bizirik eta Bibalabirjen!!

Alegiko gaztetxea: bizirik eta bibalabirjen



Ryan Experince taldea izan zela lehen kontzertua eman zuena eta beste batzuk Madarikatuak taldearena izan zela diote. Ni neu ere ez naiz ondo gogoratzten. Izan ere, hainbeste egin dira harrezkeroz!! Esan dezakedana da jende aldetik ez zela oso arrakastatsua izan baina ziurtatu dezaket garagardoa gogotik edan zutela etorri zirenek. Lata ugari ikus zitezkeen lurreen bihamunean. Garai oparoa izan zen kontzertuei dagokienean, hasierako hura. Rock Radical Vasco mugimendua bete betean zegoen. Taldeak

nonahi zeuden eta guztiek izaten zuten jotzeko gogo. Oholtza honetatik pasa direnetako batzuk aipatze aldera, gogoan ditut Baldin Bada, Sutagar, Def Con Dos, Reincidentes, Bap!!, La Polla Records, Berri Txarrak, Zea Mays, PILT, Anestesia, Kortatu, Banda Basotti, Negu Gorriak, Dut..."

"Hasieran aipatu dut kultura aldetik zegoen hutsunea betetzeko asmoa azaldu zutela gazteek. Musikak pisu handia izan du 25 urte hauetan, baina hemen izan ditugun antzerki ugarirekin barre algara ederrak

bota ditugu. Antzerki taldeak, bakarriketak, mimoak... denetik izan dugu. Peter Robertsek eskaini zigun mimo ikuskizuna dut gogoan esate baterako."

- Gogoan al dun Peter Roberts etorri zenekoa, Lorea?

- Handik gutxira telebistako iragarkian agertu huan hura? Mimo ikuskizuna eskaini ziana?

- Bai, huraxe bera. Gaztetxean egindako saioekin famatu egin zela esaten igaro genizkian hurrengo asteak!

"Nirekiko fidelotasunik handiena erakutsi dutenak zine klubekoak izan dira. Urte hauetan guztietan astero hutsik egin gabe etorri direla esatea gehiegi da, baina batzuk mezetara joan izan diren moduan, ahalik eta gehienetan hutsik egin gabe etortzen ahalegindu dira. Asteazkenetan etortzen hasi ziren eta gaur egun ere etortzen dira".

- Berogailurik gabe baina Leidor zaharreko eserlekuetan ikusten genizkian filmak. Horrek zinema areto baten itxura ematen zioan Gaztetxeari.

- Bai. Gogoan dinat neguan

nola joaten ginen goitik behe-
ra tapa-tapa eginda. Bahitunan etxeko mantak hartuta joaten hintuenak ere. Eta behin baino gehiagotan itzuli izan ninduan etxera pelikulari buruz ezertxo ere ulertu gabe. Filma xele-break ere ikusi dizkinagu.

- Tira, ez duk harritzekoa 25 urtetan zehar horrelako pelikularen bat tokatzea.

"Urte hauetan zehar makina ikastaro egin dira. Horietako bat kamisetak serigrafiatzen ikasteko egin zen eta ikasitakoa praktikan jartze aldera festetako kamisetak atera zituzten gazteek. Txalaparta ikastaroa ere antolatu zuten, baita perkusio ikastaroa ere, batzuk gainera gustuko izan eta Tolosan jarraitu zuten ikasten. Agian arrakasta gehien izan zuena gitarra ikastaroa izan zen. Ikastaroaren aitzakian edo, Alegian "rondalla" izan genuen urte pare batez. Festa zegoen bakoitzean hor irteten ziren koadrilan dozena bat lagun euren gitarrekin, rumba, salsa, rocka, euskal musika tradizionala eta edozein estilo joaz."

1+9+8+7 ALEGIKO

- Gitarra tailerra omen zeon gaztetxean?

- Bai, ikusi dizkiat kartelak. Baino zer dek tailerran asunto hori? Gitarra konpontzen hasi behar diagu?

- Ja, ja, keba, gitarra jo-tzen ikasteko den.

"Eta ekintzak gutxi baziren ere, hauek oihartzun handi-goa izan zuten Alegiko Irrati Librea jaio zenean. Era askota-riko saioak egiten ziren, politika, ekologia, trikitixa, intsumisioa-ren inguruko informazioa, kirola, eta umorea, nola ez. Irratian aritzen ziren gazteen kontura nahikoa barre egin zuten herrian. Uhinak herri guztian bar-na zabaltzen ziren, baita gaz-

txapelketak etab... Eta urtero uztaillean bulebarrean ospatzen dituzte Festa Alternatiboak. Herriko jaietako egitarau ofizialak gazteen beharrak asetzen ez zituelako hasi ziren festa alter-natiboak egiten. Lehendabiziko urtean Ziklox Garaialdekoek jar-ri zuten txozna eta haien errele-boa hartuta, gazteek antolatzen dituzte festak gaur egun".

Bidea maldan gora ere jarri zen

"Baino dena ez zen izan di-rudien bezain polita, gaztetxea hustu eta botatzeko mehatxua jaso baikenuen. Une gogorrak izan ziren, ilusioak eta ame-tsak zapuzteko arriskuan egon

egoera hartatik. Hasiera batean herritarren aldetik jaso genuen babesa. Kontuak itxura serioa hartu zuenean ordea, manifes-tazioak egin ziren eta kanpotik jende ugari etorri zen. Orduan jabetu ginen ez geundela baka-rrik eta asko ginela mehatxuari elkarrekin aurre egiteko prest geundenak".

- Bolada gogorra izan zunan baina handik eta hemendik jasotako babesarekin aurrera egitea lortu geninan.

- Bai, egin ziren manifesta-zioetan kanpoko jende ugari bildu huan eta horrek indar handia eman zigukean.

"Botatzeko mehatxupean egon nintzenez, sekulako mu-

takoan nolabaiteko erlaxazio bolada bat etorri zen. Ordu-ra arte jo ta su lanean aritu zire-nekin batera belaunaldi berriak sartzen hasi ziren. Nolabaiteko egokitzapen aro bat etorri zen. Urte haietan, ordura arte egin-dakoaren jarraipen moduko bat egin zen. Belaunaldi aldaketa erabat gauzatu zenean ordea, gauza berriak egin baino ordura artekoari eustera mugatu ziren gazteak. Horren ondorioz eta urteek aurrera egin ahala, gaz-tetxea nolabaiteko "erosotasun aro" batean sartu zen. Urtean zehar ezinbestekoak ziren ekital-diak burutzea mugatzen ziren gazteak. Festa Alternatiboak eta urteurrena izan dira egin diren ekitaldiak".

"Aurten mende laurdena. Eta badirudi aldeko haize bolada bat sartu dela gaztetxera. Aspalditik gazteen buruan zebilen bigarren solairua gauzatze bidean da eta 25. urteurrenerako dotore-doto-re jantzi naute. Aspaldi ikusi ez dudana jendea ikusi dut bileretan eta lanerako ilusioz eta gogotsu daude. Eduki aldetik ere, egita-rau bete-betea prestatu dute hau bezalako ospakizun berezi baterako. Orintxe bertan gazte eta osasuntsu nago".

"Dena den, haize alde edo aurka izan, beti nigandik oso hurbil sentitu dudana zerbait musika izan da lehen esan du-dan bezala. 25 urtetan zehar kontzertu ugari ikusteko aukera izan dut. Ia talde guztiak kan-pokoak. Egia da Ziklox Garaial-deren kontzertuak egin direla gaztetxean baina urte askoan,

tetxeak antolatutako eginkizun batzuk ere. 25 urte hauetan eginkizunak ez dira soilik erai-kinera mugatu. Kanpoan ere gauzak egin izan dituzte, men-di irteerak, futbol eta basket

zirelako. Baino egiten ari gi-nenean sinistu egiten genuen eta, herritarren eta kanpokoan elkartasunak aurrera egiteko indarra eta kemena eman zizki-gun, indarberrituta atera ginen

gimendua egon zen. Pentsa-tzekoa zen kontuak aparraren efektua izan zezakeela. Hau da, intentsitatea galduko zuen une-ren bat ere etorriko zela. Meha-txuaren zama gainetik kendu-



25 urte

GAZTETXEA

Zutik, bizirik eta Bibalabirjen!

herri mailan ez da talderik sortu. Azkenaldian ordea, Manillares Iturriaga taldeak ekarri du festa gaztetxera. 2010ean sortu zenetik hiru aldiz jo dute bertan. Abenduaren 15ean joko dute berriz eta berezia izango da arrazoi ezberdinengatik. Alde batetik, taldearen azken kontzertua izango delako. Eta bestetik, kantu bat egin didatelako! 25. urteurrenaren harira Manillares Iturriagakoei, Alegiko eskolako bertsolari gaztetxoek egindako letra musikatzuz. Aurreko kontzertu batean ere jo zuten baina hau berezia izango da. Hainbat adiskideren laguntza jaso dute kantua egiterakoan eta guztiak oholtzan ikusteko aukera izango dut.

"Dagoeneko egun batzuk eman ditugu ospakizunetan, atzean geratu dira Okene Abrego, Joxi Ubeda, Andoni Tolosa eta Nabarro hizlari moduan eta Kojo Otamendi moderatzailerarekin eginiko musika mahai ingurua. Eta gaueko kontzertu akustikoa, Morau, Okene Abrego & Mariano Hurtado eta Pettik emandakoa. Ander Arandia, alegiarrak kontsumismoaren inguruan emandako hitzaldia. Baita Karlos Zurutuzaren "Gerraren beste aurpegia" hitzaldi eta so-lasaldia. Antzerki eder bat ikusteko parada ere izan dugu, La Patro teatro talde gasteiztarrek eskaintiako "La verdadera historia de Lola Puñales" antzezlan, besteak beste.

- Joe Txomin, urteurrena bazihoak aurrera, biharko ere ederra izango duk.



- Bai, aurtan abenduak 15, egutegian gorritz margotuta zekenat. Goizetik hasiko den festa, herriko plazan sagardoa eta txorixoa denentzat. Gero **Harry&Quitau y los desenfinaus**-ekoekin rumba poteoa, babarrun jatea gaztetxean,...

- Ta digestioa egiteko "7e pasa" pilota txapelketako finalak...

- Bai, Lorea, ta iluntzean berriz **triki-poteoa, zahagiardoa eta Manillares Iturriagaren** azken kontzertua gaztetxean, eta ondoren **DJ-ak**...

- Bai, oraindik ez diat sinisten azken kontzertua izango denik.

"Esan bezala 25. urteurrena ospatzen hasi gara, baina oraindik egitarau luze bat dugu aurretik:

Abenduak 18: Hitzaldia: Fiare, Banka etikoa. Gipuzkoako arduradun baten eskutik. 19:00etan.

Abenduak 19: Zine-kluba. Gartxot filma. 22:00etan.

Abenduak 23: Antzerkia. *Pepinos podridos en el frigo*. JB Pedradas-en eskutik. 19:00etan.

Abenduak 26: Zinekluba. *SUA* filma. Filmean parte hartu dutenak aurkeztuko dute. 22:00etan.

Abenduak 27: 17:00etan Umeentzako antzerkia: Bertsol Haritza. Ondoren taloak denentzat..

21:00etan, talo jana eta hitzaldia Juantxo Agirre Mauleonen eskutik.

Abenduak 28: Kontzertua 22:30etan.

Abenduak 29: Skate erakustaldia gaztetxeko "U"an. Tolosako skate taldearen eskutik. 17:00etan.

Urtarrilak 4: Play-back saioa gaueko 10:00etan.

Urtarrilak 11: Kontzertua: Bronze eta Müturbeltz.

Udaberrian ere ekitaldi gehiago izango dira, eta izango duzue baraien berri".



Galtzaundi 375
12ko abenduak 10

Beti Nahi
galtzaundi

Garaian garaiko janariak
eta arraikieta bereziak

Tel.: 943 671 920
Errementari kalea, 16 • 20400 Tolosa



GORRI

Paper manipulaziorako
makina eraikuntza

Konponketa
eta mantenimenduak

Apatta industrialdea.

Baratzondo D 26. Ibarra

Tel.: 943 671 590.

Faxa: 943 673 916

SANZ

arraindegia

Tel.: 686 98 21 74
943 65 17 85



Ainara Azpiazu:

“Paulo Coelhoen istorioa irakurri eta buruak lotu zuen helburuan nuenarekin”

Ainara Azpiazu Hernaniko komikilari eta ilustratzailea da. Galtzakomik lehiaketako lehen saria eskuratzearekin batera 600 euro poltsikoratuko ditu abenduaren 14ko sari banaketan. Datozen lerroetan komikilari eta ilustratzaile lanaz mintzo da.

Naiara Roldan de Aranguiz

Zorionak, lehen saria eskuratu berri duzu Galtzakomik lehiaketan. Albisteak espero al zenuen?

Momentuan despistatuta harapatu ninduen eta ahaztuta nengoen. Aurkeztu diren lanekin nolabaiteko itxaropen txiki bat egoten da beti, bestela ez genuke aurkeztuko. Baina oraingoan airean utzi nuen. Sekulako poza eman zidan.

“Perfekzio” bila da zure lanaren izenburua. Nola garatu duzu ideia?

Gizakiok perfekzioaren bila denbora gehiagi galtzen ote dugu?

Gustura egotea egiten dugunarekin, daukagunarekin da bi-

dea. Beti kexaka aritzen gara, beste zerbaiten bila. Paulo Coelhoen istorio bat irakurri nuen eta berehala nire buruak lotu zuen helburuan nuen istorio honekin. Asko gustatzen zait animaliak marraztea; erdi animalia eta erdi gizaki pertsonaiak sortzea gustuko dut eta komikiarentzako aitzaki polita izango zela pentsatu nuen.

Zein da komikiarekin duzun harremana. Ilustratzaile ere bazara...

Ez dakit nire burua ere nola definitu. Batzuetan komikigile bezala gehiago ikusten dut nire burua, beste batzuetan ilustratzaile bezala. Marraztea eta margotzea beti gustatu izan zait, koadroak egitea baino harago joan nahi nuen, istorioak kontatu nahi nituen eta bi bide topatu ditut: bata komikia eta bestea ilustrazioa. Komikigintzan, Hernaniko

Kronikan egiten dut lan, Berrian ere aritu nintzen garai batean egunero tirak egiten eta sariketa bat dagoenean aurkeztu saiatzen naiz.

Komikia edo irudia sortzeko garaian zer nolako baliabideak erabiltzen dituzu?

Askotan pertsonaiak izaten ditut buruan, alde estetikoak gidoiarena baino gehiago mugitzen zait. Komigintzaren berezitasuna alde grafiko eta alde testuala biltzen dituela da. Momentuan ditudan irudiak istorio bat lotzea biltzen dut; eskema bat egiten dut eta orriak lantzen hasten naiz. Kasu kasu teknika bat erabiltzen dut. Azken aldian askoz gusturago nabil pantailatik urrutira, ahal dela eskuz lan egin. Errotulatzeko, hala ere, beti digitalizatu egin behar dut. “Perfekzio” bila lana hiru aldiz egin nuen, gustura gelditu arte. Dena eskuz egin nuen, errotulagailuz irudiak pasa, digitalizatu eta kolorea ere ordenagailuan sartu nion.

Galtzakomik lehiaketak euskal komikigintza bultzatu nahi du. Nola ikusten duzu egungo euskal komikigintza-ren egoera?

Sortzaileei dagokionez



emankorra iruditzen zait, jende on asko dago. Hala ere, Euskal Herrian egingo nukeen kritika horrelako gauzek nik nahi baino irteera gutxiago dutela da. Lehiaketaren oso gutxi daude. Momentu honetan euskara hutsean dagoen bakarria Galtzakomik da, besteek aipamenak izan ohi dituzte, baina iruditzen zait bigarren maila batean uzten dutela euskarako lana. Lan luzeak egitera ez naiz animatzen lan aldetik sekulako inbertsioa suposatzen duelako, argitaratzea ere ez dut uste oso erreza izango litzatekeenik. Frantzia komikia irakurtzeko orduan kultura gehiago dagoela nabari da eta sorkuntza aldetik ere lan egitera errazago animatzen dira.

Datorren urtean ere parte hartzeko intentzioz?

Denborarekin eta gogoarekin harrapatzen banau animatuko naiz. Gainera, poz handia eman dit bigarren saria Hernaniko beste neska batek –Maitane Gartziatena– atera duela jakiteak. Hernanin tailer bat ematen nabilen, ikasle guztiei Galtzakomikeko oinarriak pasa nizkien, batzuk aurkeztu eta kasu honetan nire ikasle batek bigarren saria atera du. Oso polita iruditu zait. ☺

Galtzakomik 2012. urteko edizioak komiki festa ekarri du; urterik emankorrena izan da, guztira 182 komiki jaso dira.

V. Ibarra Galtzakomik Komiki Lehiaketaren epaimahaiak –Joseba Antxustegiartxe (Galtzaundiko komikilaria), Juanba Berasategi (marrazki bizidunen marrazkilaria), Jose Luis Longaron (Tolosako margolaria) eta Kike Amonarriz (komikizalea eta komikigintzan aditua)– aurkeztutako komikiak aztertu eta epaia jakinarazi du. Ainara Azpiazu Adurizek eskuratu du 18 urtetik gorako mailan lehen saria “Perfekzio” bila lanagatik. 18-19 orrialdeetan ikusgai komiki sariduna. 12-18 urte bitarteko irabazlea ordea, Paulo Albisua suertatu da eta 12 urtetik beherakoetan Hodei Yañez izan da garaile.

Saria, datorren abenduaren 14an, ostiralean, arratsaldeko 19.30ean, Ibarako Kultur Etxean ospatuko den sari banaketan jasoko dute. Orduan, Galtzakomik erakusketak bere ateak zabalduko ditu astebetetz. Izan ere, abenduaren 21a arte jasotako 182 lanak ikusgai egongo dira Ibarako Kultur Etxean.

Saridunen zerrenda

18 urtetik gora

- saria:** Ainara Azpiazu Aduriz. “Perfekzio” bila. (600 euro)
- saria:** Maitane Gartziatena Agirrezabala. *Sekretu bat*. (400 euro)
- aipamena:** Gorka Salaberria Sorondo. 2040/07/06. (Komiki bilduma eta marrazketarako materiala)

12-18 urte bitartekoak

- saria:** Paulo Albisua Idiakez. *Benzeslao ajentea. Gobernua... Ze fundamentua!* (400 euro)
- saria:** Sara Maiza Arreche. *Nere bidaia*. (200 euro)
- aipamena:** Naia Imaz. *Ardi beltza*. (Komiki bilduma)
- aipamena:** Izaro Perurena Arruabarrena. *Hosto bidaiaria*. (Komiki bilduma)

12 urtetik behera

- saria:** Hodei Yañez. *Animaliak gerra erdian*. (Komiki bilduma eta marrazketarako materiala).
- aipamena:** Arkaitz Jauregi Imaz. *Hortz haundi magoa*. (Komiki bilduma)
- aipamena:** Aimar Alvarez Etxarri. *Urki salbatzeko taldea*. (Komiki bilduma)
- aipamena:** Lorea Muñoz Syavery. *Abentura berria*. (Komiki bilduma)
- aipamena:** Ane Antxustegiartxe Urkizu. *Putza!* (Komiki bilduma)



Galtzaundi 375
12ko abenduak 10

URDAIKARIAK
Altuna
HARAKINAK

Korreo, 39
Tel.: 943 671 414

20400 TOLOSA
Gipuzkoa

gizarte
kutxa

ZABALA
DESGUAZEAK
KUDEATZAILE BAIMENDUAK
EU2/111/04

BEOTIBAR INDUSTRIALDEA, 18 - BELAUNTZA
TEL/FAXA: 943 671 790 -
MUGIKORRA: 696 593 347

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Foruak, 5-bis • TOLOSA
Tel.: 943 652 712

Gozotegia

Okindegia

ECEIZA

P. Gorosabel, 34 - Telf. 943 655 161 - San Francisco, 8 - Telf. 943 651 916

matilda

zure moda osagaren denda

Korreo Kalea, 3
Tolosa

Joxemari Iturralde

Euskal literaturaren lehen lerrotik

Duela hogeita hamar urte inguru, etorkizun berri baten ilusioaz borrokatzen zen demokrazia faltako garai ilun hartan, Euskal Herriko metropoli bakarra den industriaren izerdiaz goritutako orduko Bilbo gris, kutsatu eta erdaldunean, literaturak bildu zituen, Pott Bandaren inguruan, gaur egun euskal literatura eta musikan puntako sortzaileak diren lagunak: Joseba Sarrionaindia, Ruper Ordorika, Bernardo Atxaga, Jon Juaristi eta Joxemari Iturralde.

Felix Aiestaran

Joxemari Iturraldek haur, gazte eta helduentzako narratibetan ibilbide emankorra egin du. Poemagintzan ere irudi ederrak eskaintzeaz gain, artikulugintzan eginiko ekoizpena ere balio handikoa da.

Literatur lanean gogotsu ari da, duela gutxi "Frantzia je t'aime esaten da" gazteei eskainitakoa argitaratu zuen. Ondoren, Gara egunkarian argitaratutako bere kultur artikulua interesgarriez osatutako "Kaleidoskopioa" liburua atera zuen eta oraingoan, besapean argitara berria duen "Ilargi horia" eleberria dakargitu. Hurrengo hilabeteetarako beste liburua osatzen ari da.

Denbora gutxian ikaragarri aldatu da musika eta literaturaren eroslea arteko bidea...

Diskoa ia inork ez du erosten internetik musika doan jaitsi daitkeelako, baina liburua objektu

modura ere aldatu egin da. Duela lau urte, denboraldi luze batean Londresen egon nintzenean, jendeak autobusean tabletetatik irakurtzen zuen. Orduan harrituta geratu nintzen, baina gaur egun, hemen ere, hori normal ari da bilakatzen. Paperezko liburua pikutara doa. Internet dela medio gaur egun idazteko era ere aldatu egin da: testuak laburragoak dira, gazteek ez dakite ondo idazten, sortu den jergak akatsekin idazteko bide ematen duelako. Jendeak ez du pazientziarik testu luzeak irakurtzeko. Baina ni baikorra naiz, beti egongo delako istorioak entzuteko prest dagoen jendea; azken finean, horixe da literatura.

Euskaldunok ba al dugu irakurtzeko joerarik?

Euskaldunok dohain ugari dugu: oso langileak gara, jendea laguntzeko prest gaude, Natu-

rarekin harreman zuzena dugu... baina euskaldunok irakurzaletasunik ez dugu. Gazteei txikitatik irakurzaletasuna ez bazaie txertatzen, akabo. Horretan lan handia egin behar dute, erakundeek eta irakasleek, besteak beste, irakurzaletasuna bultzatzeko heziketa proiektua gauzatzeko. Irakurtzeko esfortzua egin behar da, gazteei errazagoa egiten zaie internet edo telebistaz informazioa jasotzea. Istorio batean murgiltzeko bakarrik zaude eta ohitura behar da. Horretarako heziketa beharrezkoa da.

"Frantzia je t'aime esaten dute" gazte liburua zertan datza?

Nire burua arintzeko tarteka haur eta gazte literatura egiten dut. Risky eta Anuxka protagonistak badituzte horrenbeste liburutik, 7 urtetik hasi 18 urte bitarteko euskaldun mutil eta nesken bilakaera, urteotan azaldu nahi

izan dut beraien bidez. Nire gaztaroko gertaerekin nahastu dut, adin horretan lehengusuarekin Frantziara bidaltzen baikintuzten udan, frantsesa ikasteko. Gazteek ingelesa jasotzen dute gaur, baina Frantzia oso gertu daukagu.

Frantsesa horren gertu eta horren urrun... Ez al gaude ingelesarekin itsututa?

Ingelesa ezinbestekoa da gaur egun, komunikazio eta zientzia arloan ingelesa nagusi da, garai batean, XVIII. mendean frantsesa edo, lehenago, latina izan zen bezalaxe. Gazteei esaten diet lau hizkuntza ikasi behar dituztela ondo: euskara, gaztelera, ingelesa eta frantsesa. Erraz xurgatzen dute dena eta txinera edo arabiera moduko hizkuntza bitxiak ikasten badituzte ere, hobe.

Pedro Oses marrazkilariak lan dotorea egin zuen... Zein toki du

marrazkilariak haur literaturan?

Haur eta gazteek zailtasunak dituztenez literatur munduan murgiltzeko, liburuan sartzen hasteko bidea ematen diete marrazkiek. Marrazkia liburua erakargarriagoa egiteko bidea da.

Zein da haur literaturaren berezko ezaugarria?

Norentzat zuzenduta dagoen izango da berezko ezaugarri hori, baina hamabost urtekoentzat idatzitako liburua ona bada edo-nork irakur dezake. Teknika eta hizkera desberdina eskatzen du adin bakoitzak.

Zer izan behar du liburuak haur edo gazte bat harrapa dezan?

Ez dago errezeta unibertsalik. Erakundeek eta irakasleek zubi lana egin behar dute. Irakasleak irakurtzea gogoko izan behar du. Ikasle bakoitzak zer irakurri duen eta zer duen gustuko oso gogoan izan behar da. Gaur egun, zorionez, euskaraz baditugu gazte bakoitzarentzat gustuko liburuak: poliziakoak, historikoak, amodiozkoak....Irakaslearentzat lan nekeza da, gehiago irakurri behar duelako, baina bidea, ikasle bakoitzari, banan-banan liburuak aukeran eskaini behar zaizkio.

Nerabeek berez dute esperimintatu eta bidaiatzeko gogo... Nerabearoa horren garai ederra al da?

Gazteak erantzungo duena eta helduak esango duguna desberdina izango da. Denok ezagutzen ditugu haurtzaro zorionsua izan dutenak eta oso gaizki pasatu dutenak ere. Nerabearoa garai zaila da mundu bat zabaltzen zaielako, amodioa azaltzen da, ez dakite zer gertatuko zaien eta gora-behera handiak dituzte. Hamabi urterekin badakite ez direla

umeak, baina ez dira helduak ere, aldaketa handiko garai hori oso interesgarria da, baita literatura-rako ere.

Gazteak ez al dira mundu birtualean murgilduta? Trenez bidaiatu gabe internetez mugi daitezke...

Goiz osoa batera egon elkarri ezer esan gabe eta etxetik hasten dira bere kontuak zabaltzen gazteak ordenagailutik internet dela medio. Baina, bizitzak gure tokian jartzen gaitu eta lana edota seme-alabak izateko adina iristen zaie-nean, soberazko harreman birtual horiek baztertuko dituzte.

Bilbon Pott Banda sortu zenuten garaia azalduko al diguzu?

Ikasketak Iruñean amaitu eta irakasle lanetan Bizkaian hasi nintzen. Bernardo Atxaga, Jon Juaristi, Ruper Ordorika, Joseba Sarrionaindia eta Manu Ertzila, Pott Bandan literaturak bildu gintuen. Aurretik ere literatura maite genuen eta berrogei urte ondoren literatura maitatzen jarraitzen dugu, bakoitzak bere bidea eginez. Bilbon bildu ginen, garai ilun eta tristeak ziren. Euskara eta politika aldetik oso giro kaxkarra zegoen frankismo hil berri hartan. Inork ez zekien zer gertatuko zen. Euskaraz ez zegoen ia ezer irakurtzeko eta guk euskal literaturan zerbait egin genezakeela uste genuen eta asteen behin edo bitan biltzen ginen. 1977. urtea zen. Literaturaren inguruan solas egitea zen gure asmoa, baina ezer ez zegoenez ia, argitaletxe bat sortzea pentsatu genuen, baina ez zegoen dirurik, ez geneukan zentimorik horretarako. Horrela sortu zen Pott aldizkaria; idatzi, argitaratu eta banatu, dena guk egin behar izaten genuen.

Bilbo ilun, industrial, arre hura ez al zen euskal literatur ahul haren isla?

Bilbo hartan ez zen euskararik entzuten, gaur egun entzuten den modura. Hamar urte lehenago euskara bere kabuz ikasi eta Gabriel Aresti Bilbo hartan euskaraz idazten hasi izanak meritu izugarria zuen. Perspektiba galdu egin da zer zen hura jakiteko.

Pott Bandako bakoitzak bere bidea jarraitu du...

Garai hartan elkar ezagutu izan ez bagenu ere bakoitzak bere ibilbide literarioari berdin jarraituko genion. Franco hil eta gero, denok Euskal Herri berria nahi genuela uste genuen, politikoki ibilbide desberdinak egin ditugu. Begira Jon Juaristi non dabilen eta zer astakeriak esaten dituen. Sarrionaindia urte luzeetan non egon den...


Ba al duzu harremanik Jon Juaristirekin?

Azken hamar urteotan ez dut harremanik izan Jon Juaristirekin, baina besteekin, bai. Atxaga, Ruper edo Sarrionaindiarekin... proiektuak egiten ere jarraitu izan dugu elkarrekin.

Garai hartan ez al zegoen esperimintatzeko joera handiagoa?

Taldean ni nintzen gehien esperimintatzen zuena, besteak klasikoagoak ziren. Garai hartan nire gustuko liburu gutxi zegoen euskaraz eta kanpoko literatura hona ekartzen hasi ginen. Etxe barruko aire kirastura, kanpoko aire berriak sar zitezen, leihoak zabaltu nahi genituen. Frankismo garaian euskaraz apaizek





idazten zutenaren meritua hortxe dute, baina beraiek egiten zuten literatura ezin genuen jasan.

Bafile baten barruan euskal literaturaren pasadizoa euskal gizarte osoan zabaldu zen...

Nobela batetik ateratako pasarte bat zela ematen zuen. Sarriren kanta gazte asko hasi zen kantatzeko, baina askok ez zekiten zein zen. Sarriaindia mitoa bihurtu zen, baina jende askok mitoari besterik ez dio heldu, jende askok ez du bere literatur lana irakurri.

Joseba Sarriaindiaren lana zabaltzen aritu zara, ezta?

Bai, bere liburu aurkezpenak egiten askotan izan naiz, baina Sarriaindia, bere kasa da eza-guna. Orain nahiago dut neure lana zabaltzen hasi. Sarriaindiari azken sari hori ez ematearena

garaiko agintari batzuen txotxolokeria izan da. Eztabaida sortu zen eta horri Madrileko Gobernuak erantzun zion ez zegoela deliturik saria kentzeko. Hemengo agintariek penagarri geratu ziren. Eztabaidak on egin dio liburuari, berehalaxe, beste argitalpena egin behar izan delako.

Orain dela gutxi atera duzu "Kaleidoskopia" liburua...

Hamarren bat urtez Gara egunkariak zeukan gehigarri kulturalerako orria idazten aritu izan naiz, astero hutsik egin gabe. Hemengo eta kanpoko kulturaz idatzi izan dut. Krisiarekin desagertu egin da orri hori, baina Aritz Galarraga, Bartzelonako Unibertsitateko irakasleak, bere gustuko nire testuak aukeratu eta, hitzaurre

interesgarri batez, liburu mardula osatu du.

Euskal Literatura ez al dago erbestera bere herrian, bertan?

Hemen, gutxi irakurtzen denez, literatura baztertu egiten da. Beste lekuetan ere literatura irakurri gabe jendea bizi daiteke, nik ezin nuke, baina... Hasierako garai haietan beste zerbait espero genuen. Ni ez naiz ezkorra, asko aurreratu da euskararen erabileran, askoz gehiago idatzi eta irakurtzen da, baina askoz gehiago espero genuen. Ezkorren euskal literaturak sabaia jo duela esaten dute eta beheakada datorrela diote. Nik ez diot hori. Baikor izateko arrazoiak badaude. Hizkuntza baten historian berrogei urte ez da ezer. Euskararen erabilerak geldialdia badu oraintxe, agian hemendik urtebetera bizkortu egingo da...

Durangoko Azoka ez al da miraria?

Udaberrian eta udazkenean egiten ziren bi Durangoko Azoka ezagutu izan ditut. Orain bakarra egiten da. Jende asko bertaratzen da, libururen bat edo beste erosiko du, apika, baina gero, urtean zehar, zer? Zenbat liburu erosten ditu jendeak urtean zehar? Liburu dendak ixten ari dira...

Badituzu poesia kantatuak...

Abesbatza eta abeslariarentzat eginak baditut. David Azurzak musikaturako nire bi testuak, umeentzat Topic-en abenduan kantatuko dituzte. Musika literatura gerturatze egokia izan daiteke. Ruperrek ere beste idazleen lanekin batera nireak ere garai batean musikatu zituen... Baina nik faltan botatzen dudana, maila audiobisualean, euskal zinema zuzendariak euskal idazleek tes-

tuak gehiago erabili ez izana. Gidoiak egiteko hemengo idazleen lanetatik ideia ugari dituzte esku-ra, nahi izanda, baina ez da aukera hori aprobetxatzen.

Zer iruditzen zaizkizu zuzeneko irakurketak?

Irakurle taldeen moda, Inglaterratik eta, kanpotik dator baina hemen gehiago indartu beharko litzateke. Liburutegi eta liburu dendetan sortutako honelako irakurle taldeak herri guztietan egon beharko lukete. Batzuek liburutegia, liburuak uzteko biltegia besterik ez dela uste dute, baina liburuazainek erantzukizun izugarria dute. Euskal Herrian hasi dira leku batzuetan egiten eta hor bide luzea dago. Kanpoan egiten da, hemen apenas.

Euskal Herriko garai berrion errelatoa kontatuko al du euskal literaturak?

Garai hau kontatzeko denbora falta da, berrogeita hamar edo berrogei urte itxaron beharko da. Orain ari dira azaltzen Gerra Zibilari buruzko liburu onak. Garai honetako informazioa denok jaso dugu, baino errelato artistiko eta literarioa egiteko denbora falta da. Gai honetaz taxuzko nobelak idazteko iritsiko da denbora.

Zein egitasmo dituzu esku artean?

Tolosako istorio askoz jositako "Hyde Parkeko hizlaria" nobela argitaratu nuen duela sei urte. Nobela idazteak denbora luzea eskatzen dit eta "Ilargi horia" eleberria atera berri dut orain bertan. Lan mardula da, ez luzea, ea ezustekoren bat hartzen duen irakurleak! Udaberriko gazte nobela bat ere aterako dut, helduentzat ere izango dena, jada amaituta daukat.



Amaia Etxetxipia
Nutrizio aholkularia

Gabonak gertu ditugu eta beraiekin ospakizunak datoz. Mahaiaren inguruan, janari eta edari goxoez inguratuta ikusiko dugu gure burua. Janari eta edari gehiegi batzuetan, gure organismoan efektu desatseginak sortuz. Gaur, alkoholari lotutako kontuak izango ditugu hizpide. Gehiegi hartuta, komeriak!

Koxk!

Ospakizunak: janari eta edari goxoak...

Baina zer da alkohola? Bere izen generikoa "etanol" edo "alkohol etilikoa" da. Gure gorputzean eragin desberdinak izaten ditu faktore desberdinen ondorioz. Egoera hau pixka bat ulertzeko pausoz pauso joango gara.

Bere absortzioa, digestio-hodian ematen da, batik bat heste mehar eta urdailean eta faktore hauen menpe egongo da:

- kontaktuan dagoen denbora
- baskularizazioa
- absortzio azalera
- kontzentrazioa (bakarrik edo janariarekin joatea)

Absortzio abiadura nahiko azkarra da. Kantitate handia eta baraurik hartzen bada, xurgatze abiadura handiago izango da eta gasaren presentzia baldin bada ere bai, absortzio azalera handitu egiten duelako. Ondoren odola eta linfatik garraiatuko da, uretan disolbaturik. Gorputzeko ur guztian zehar banatuko da. Batez ere, ur kopuru altua duten organo eta ehunetara iritsiko da:

gibela, giltzurrunak, barea, nerbio-sistema, plazenta eta fetua (kontuz haurdunaldian fetuaren ur kopurua oso altua baita).

Metabolizazioari dagokionez, gehienbat gibela eta urdailean ematen da, bere abiadura nahiko konstantea delarik, baina hala ere zenbait faktoreen menpe egongo da:

- gibelaren neurria (gizonetan emakumetan baino handiago da)
- urdaileko metabolismoan parte hartzen duten entzimen eragina
- zenbait botiken eragina
- alkohola metabolizatzen parte hartzen duten sistema entzimatikoen heldutasuna (haurretan, helduetan baino txikiagoa da)
- sistema entzimatikoko horien egoera edo osotasuna (okerragoa izango da zahartza-roan, desnutrizioan eta gibel-leko gaixotasunetan)
- arrazia eta beste ezaugarri genetikoak
- azukrearen presentziak ozto-

patu egiten omen du alkoholaren eliminatzea (beraz, kontuz freskagarriekin nahastuta doanean)

Azkenik gorputzeko eskrezio bideak hauek izango ditu: giltzurrunak, birrikak, azala eta esnea.

Aipatu dugun guztia kontutan hartuta, ulertzekoa da alkohola ez gomendatzea ez haur, haurdun edo bular-emaleen kasuan.

Heldu osasuntsuen kasuan, orokorrean, neurrizko toma hauek ematen dizkigute: emakumezkoetan 2 eta gizonezkoetan 3 unitate egunean baino gehiago ez hartzea (unitate bat, 10 gramo alkohol dira; adibide bezala, unitateak, 80-100 ml-ko ardo basoa hartze du). Alkoholak eragiten dituen efektuen artean hauek aurkitzen dira:

- hiperkolesterolemian, HDL (kolesterol ona) igo eta LDL (kolesterol txarra) jaisten laguntzen omen du
- lasaigarri eta hipnotiko, euforia eraginez
- jateko gogo eza (gosearen gunea inhibituz)

-analgesikoa

Baina eragin kaltegarriak askoz gehiago dira noski. Gomentatzen dituzten kantitate horiek baino gehiago epe luzean hartzen badira, denborak aurrera egin ahala arazoak sortuko dira, organismoan sistema fisiologiko desberdinen eragin kaltegarria izanaz: sistema kardio-baskular, arnas-sistema, urdaila, hesteak eta gibellean (gastritis, ultzerak, heste-florako alterazio eta lesioak, beherakoak, neuro-nako kalte itzulezinak, azaleko basodilatazioak, bihotz-geldialdi, zirrosia...).

Momentu konkretu batean alkohol kantitate altuegia hartzen bada ere, koma etilikoa eman daiteke; hau, alkoholaren gaindosi bat delarik.

Beraz, beti bezala, dena neurri! Eta festetan dantza egiten badugu, toxinak kanporatu eta muskuluak erlaxatuko ditugu. On egin!

"Perfekzio" bila

Eguraldi onak lagunduta gureta nonbilen bäsöän zehar goiz hartan.



Ela lapeteän...



umetan nuen lagunk minera lapoku nuen!



Hura zen poia hura!



Ederra! Berriz okarrakin!



Guzatik dezentu okatuta zauden.



Bata gu goiz ere.



Bäsöko txoko batean eseri ginen.



Berearen berotsu ziplo kurreri erori nindün.



'Nire kurrerakoa', pentsatu nün.



Ikusis ikusis huan! Nire azukre kodokorrak fiskoki ederra behar ziran!



Ela Xurden nire ibentzerik kodokorrak huan nindün. Bäsöki nire kurreri erori hen bala okatuta nindün.



Bala okatuta, kurrerakoa bala erori nindün.



Dona kurreri, bala okatuta nindün.



18 urtetik gorako irabazlea: "Perfekzio" bila
Ainara Azpiazu Aduriz



Galtzaundi 375
12ko abenduak 10

V. IBARRA GALTZAKOMIK

KOMIKI LEHIAKETA 2012



Berrin bati eta bati ninduan, eta hondartza edo batera intsi.



ETA HANTXE BAT, FISKOKI EDOR EDERRA HUAN DTSÄMEI... MIMM...



KAPOTIK EDERA,
BANI SAKUKA
KATARI GOGOMAKO!



Ez dakik nikiko
olukidatik ematen
zabekidatik!



Ahal bezala alde egin
niam, amastaka...



3



Usteakibean España nireyala kasi orokoa
bikotatik sekulako lagarida eman zidiken.



Belaia egin ninduan denboratik bakiak,
zabekidatik eta zer egin pentsatzen.



ETA eluzeri bueltatzen artetik.



Belaia Lorekul!



Eskertzen denbora dago pata gortin, lagun nirek egin.



Hakiko bakiak, bane "loringa" erdian bati abakizati artetik zati
Munduan biamen.



4

irakurri entzun lkusi

Maitagarria eta desioa
Mariasun Landa
Ilustrazioa: Maite Gurrutxaga

Hona hemen maitagarri bati lagundu zion neskato baten istorioa; maitagarriak, esker onez, dohain bat eman zion: bere edozein desio beteko zuela. Hitza eman zion: maitagarri hitza. Horrez gain, neskato horrek bere opariaz gozatzeko behar izan duen denbora luzeaz arituko da ipuina, nola emakumetu eta zahartu zen aukera liluragarri harekin.

Huts unea
Hutsa

Huts unea Hutsa bikote akustikoaren bigarren lana da. Huts Unea 6 kantuz osatuta dago digipack ederrean aurkeztuta. Soinuari dagokionez Kike Mora arduratu da estudio lanez eta Kepa Calvok eta Iñaki Plazak hartu dute parte diskoan perkusio tresnekin.

Letretan Alaia Martin, Jone Uria, Onintza Enbeita eta Ruben Riberoaren laguntza izan dute.

Asterix eta Obelix: Maiestatearen zerbitzura
Laurent Tirard

Kristo aurreko 50. urtea. Zesarrek konkista-gosea du. Legio entzutetsuen agintari, uharte bat inbaditzea erabaki du, mundu ezagunaren mugan: Britania herrialde misterioetsua. Garai-pen azkarra eta erabatekoa izan du. Edo... ia erabatekoa. Britaniako herri txiki batekoek eutsi egin die, baina indarrrik gabe geratzen ari dira.

Abenduaren 14tik urtarrilaren 18ra bitarteko hitzorduak

Kontzertua

Benito Lertxundi. Abenduak 14, ostirala. Tolosa, Leidor. 20.30

Willis Drumond. Abenduak 14, ostirala. Tolosa, Bonberenea. 22.30

Elkano Browning Cream eta Makala DJ. Abenduak 15, larunbata. Tolosa, Bonberenea. 22.30

Arimaz kamera orkestra. Abenduak 15, larunbata. Tolosa, Santa Klara komentu eliza. 20.45

Isidro Larrañaga akordeoi orkestra. Abenduak 21, ostirala. Tolosa, Leidor. 19.30

Tolosa Orfeoia. Abenduak 22, larunbata. Tolosa, Leidor. 20.30

Maika Makowski. Abenduak 27, osteguna. Tolosa, Bonberenea. 22.00

Naiz Roxa, R eta Cobra. Abenduak 28, ostirala. Tolosa, Bonberenea. 22.30

Barrua Truk, Glaukoma eta Atila y los Unos. Abenduak 29, larunbata. Tolosa, Bonberenea. 22.30

Anari. Abenduak 30, igandea. Tolosa, Bonberenea. 19.00

Anger eta Humus. Urtarrilak 18, ostirala. Tolosa, Bonberenea. 22.30

Kulturaldia. Ikaztegieta

Barrura begiratzeko leihoak filmaren proiektzioa. Abenduak 14, ostirala. Udaletxe azpiko aretoa. 22.00

Jaialdia

Beldur Barik ekimena. Abenduak 19, asteazkena. Tolosa, Leidor. 20.00

Haurrak

Ipuin txokoa, gurasoak ere ipuin kontari! Abenduak 14, ostirala. 3-6 urte bitarteko haurrentzat eta euren gurasoentzat. Kontalaria: Miriam Mendoza. Tolosa, Errota Haur Liburutegia. 18.00

Harezko ipuina. Txotxongi-loak. Abenduak 15, larunbata. Markeliñe. 8 urtetik gorakoentzat. Tolosa, Topic. 18.00

Ipuin kontaketa. Abenduak 17, astelehena. Egoitz ipuin kontalariak eskainia. Alkiza, liburutegia. 18.00

Ipuin kontaketa. Nasrudin eta bere astoa. Baraka taldea. Abenduak 19, asteazkena. Alegia, liburutegia. 18.00

Patata tropikala, "Pirata Garrapata". Haur parkearen baitan. Abenduak 26, asteazkena. Tolosa, Zerkausia. 17.00

Potxin eta Patxin, "Ohitura onak". Haur parkearen baitan. Abenduak 27, osteguna. Tolosa, Zerkausia. 12.30

Rosa María Martínez, "...Hala

Bazan". Abenduak 28, ostirala. Tolosa, Zerkausia. 17.00

Poxpolo eta konpainia. Abenduak 29, larunbata. Tolosa, Leidor. 16.30 eta 18.30

Txan Magoa. Urtarrilak 2, igandea. Tolosa, Leidor. 17.00

Bueltaka. Behi bis. 6 urtetik gorakoentzat, euskaraz. Urtarrilak 12, larunbata. Tolosa, Topic. 18.00

Kz Gunea

Ibarra. Abenduak 20 eta 27, ostegunak. Monitorea bertan. Ibai Gain, 6 behea. 16.00 -20.00

Erakusketak

Bizilagunak. Abenduak 21 arte. SOS Racismo. Mundu bat Tolosaldean. Alegia, Kultur Etxea.

Mariona Masgrau: bidaia bat txotxongiloen mundura. Martxoa bitartean. Tolosa, Topic

Bonbereneak 15 urte

Bonberenearen 15. urteurrena. Abenduak 22, larunbata. 11.00etan kalejira eta 14.00etan 15. urtemuga bazkaria

Okupazio eguna. Abenduak 23, igandea. Afaria eta su artifizialak. Tolosa, Bonberenea

Mus txapelketa. Abenduak 26, asteazkena. Tolosa, Bonberenea. 22.30



Antzerkia
Carpe Diem. Txalo produkzioak. Tolosa, Leidor. 20.00

Odol ateratzea
Abenduak 17, astelehena. Tolosa, Kultur Etxea. 18.00. Gipuzkoako Odol Emaileen esku

Herri Batzarra
Tolosaldea Osasun Publikoa-ren Alde. Abenduak 15, larunbata. Tolosa, Kultur Etxea. 12.00. Osakidetzaren eta INVIZaren arteko hitzarmenaren lehen urteko balorazioa egingo da, besteak beste.

langile eta langabetuentzat ikastaroak, doanik.

Lanbidek diruz lagunduak

Ikastaroaren izena	Hasiera data	Ordu Kopurua
Kalkulu orriko aplikazio informatikoak (Excel oinarritzkoa)	2013.01.07	50
Automatismo programagarri aurreratua (Siemens S7)	2013.01.07	60
Aire egokituko instalazioen muntaketa	2013.01.28	40
Acces oinarrikoa	2013.02.18	50

Gure ikastaro eskaintza ezagutu nahi duzu?
Jo ezazu Tolosaldea GLHBiko bulegora.
Santa Luzia 17 - 20400 Tolosa
Telefona: 943.65.11.47 - 615.775.678

idazkaritza@tolosaldea.com
www.tolosaldea.com

info@ikastn.com
www.ikastn.com



TOLOSALDEA gurea da! Tolosaldea
Instituto Superior de F.P. Tolosa, 1974

Goardiako farmaziak

Ostirala, 14 Etxebeste Jesus M ^a (Gernikako arbola, 3) Tolosa	Asteazkena, 19 Azpiroz L. (Amarotz, 9) Tolosa	Astelehena, 24 Lejeune, Leyre Euskal Herria, 46 Ibarra
Larunbata, 15 Santamaria I. (Nafarroa etorb. 2) Tolosa	Osteguna, 20 Etxebeste Jesus M ^a (Gernikako arbola, 3) Tolosa	Asteartea, 25 Santamaria I. (Nafarroa etorb. 2) Tolosa
Igandea, 16 Morant R. (Zabalarreta, 1) Tolosa	Ostirala, 21 Olarreaga M. (M.J.Iraola, 10) Tolosa	Asteazkena, 26 Iturrioz, I. (Euskal Herria, 3) Ibarra
Astelehena, 17 Iturrioz, I. (Euskal Herria, 3) Ibarra	Larunbata, 22 Bengoetxea E. (Kale Nagusia, 7) Tolosa	Osteguna, 27 Morant R. (Zabalarreta, 1) Tolosa
Asteartea, 18 Lejeune, Leyre Euskal Herria, 46 Ibarra	Igandea, 23 Olarreaga I. (korreo kalea 2) Tolosa	Ostirala, 28 Morant R. (Zabalarreta, 1) Tolosa

Telefono interesgarriak

Alegia-Amezketeta-Abaltzisketa-Albztur	Gernikako Arbola, hitzor	943 006 900
Osasun zentroa	Amarozko dispensarioa	943 672 637
Altzo	Asunzion klinika	943 675 799
Medikua	(larrialdiak)	943 675 390
Anoeta-Alkiza-Hernalde	San Kosme San Damian	
Medikua	geriatrikoa	943 672 932
Baliarrain	Udaltzaingoa	943 675 858
Medikua	Ur eta Argia (Tolargi)	943 650 016
	Ur zerbitzuak (aberiak)	639 352 156
Berastegi-Elduain	lurreamendi egoitza	943 670 325
Medikua	Larrialdiak, Suhiltzaileak	112
Bidegoian	DYA	943 672 536
Medikua	Gurutze Gorria	943 674 888
Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu		943 651 425
Osasun etxea	Ertzantza	943 673 022
Ikaztegieta	Tolosa Gasa	943 675 320
Medikua	Lizartza	
Irura	Medikua	943 682 077
Osasun zentroa	Orendain	
Tolosa	Medikua	943 655 595
Anbulatorioa, larriald.	Orexa	
San Esteban, hitzordua	Medikua	943 682 228

Galtzaundi 375
12ko abenduak 10



Nafarroa etorbidea, 13-behea
20400 Tolosa
Mobila: 670 417 922
Tel./Faxa: 943 650 313

ARTESANIA
ZUEN TZART
*eskuz esku
arrunta berezi bihurtu!*
GERNIKA, 4 TOLOSA
ARTESANIAZUENTZART@EUSKALNET.NET
TEL. 943 650 359

TINDATEGIA
KATZ
Laskorain kalea • TOLOSA
Tel.: 943 652 618

ARALAR KIROLAK
Laskorain, 7 • TOLOSA
Tel.: 943 654 916

Muxutruk

Lana

• Ingelesko eta frantseseko klaseak barka edo taldeka. Maila desberdinak. Irakasle tituluduna. 664 160268

• Sukaldari edo zerbitzari laguntzaile gisa lan bila nabil. Homologatutako titulua daukat. 671 44 66 15.

• Emakumea, etxeko lanak egiteko eta pertsona helduak zaintzeko prest. 688 642 137

• Klase partikularrak. Maila guztiak, talde txikietan. Esperientzia. (Kristina). 652 739808

Etxebizitza

• Bielsa-n (Huesca) etxebizitzak salgai 50.000,- € tik aurrera. Kalitatezko ekipamenduak. Pirineoetan, Frantziako eski estazioetatik oso gertu (Sain Lary eta Piau Angalí). Ordesako parke nazionala eta "Monte Perdido" inguruan. 619311255

• Jaka-ko urbanizazio batean azken 5 etxebizitza salgai garaje eta trasteroarekin. Prezioak: 120.000,- € eta 145.000,- € artean. Erabateko kalitatezko ekipamenduak. Informazio gehiagorako deitu 619311255ra.

Salgai

• Quads-a salgai. Gasgas K2 250 c.c. 2055 urtekoa, 2 laguntzako homologatua. Prezio interesgarria. 618 254960. Ariz.

• Furgoneta Volkswagen T4 modelo, multivan salgai. 240.000 km. Egoera onean. Kanbio automatikoa. 102 zaldi. 9.500 euro. 609481124

• Lokala salgai. 34 m2, Iparragirre auzoan (Tolosa). (Ana). 645 710789



aries

Martxoak 21-Apirilak 21

Burua eta ideiak lanean jar itzazu, garrantzi gabeko gauzetan pentsatzeari utziz. Gustuko duzun gauzetan lanpetuta egotea ona da, barne hazkuntzarako onuragarria suertatuko zaizu.



taurus

Apirilak 22-Maiatzak 21

Lan aukera ezberdinak suertatuko zaizkizu, mailan gora egiteaz gain, ekonomikoki onurak ere iritsiko zaizkizu. Bikote harremanari dagokionez, gozoz aritu beharko zara egonkortasuna mantendu ahal izateko.



gemini

Maiatzak 22-Ekainak 21

Lanean energia nola erabiltzen duzun aztertu beharko zenuke, helburua eraginkorragoa eta emankorragoa izatea da. Kontrakoa eginez gero, gaixotzeko arriskua izango duzu.



cancer

Ekainak 22-Uztailak 22

Lan jarduera handiarekin jarraitzen duzu, ez zaitez kexatu, izan ere, limosna baino ez duzu eskatu eta unibertsoak horixe bidali dizu. Egoera aldatzeko lanean jarri zaitez.



leo

Uztailak 23-Abuztuak 22

Diru kontuetan arduraz jokatu beharko zenuke, gastuak murriztea litzateke egokiena. Tentuz ibili beharko zara. Familia kontuetan ere zuhurtziaz jokatu beharko duzu.



virgo

Abuztuak 23-Irailak 22

Besteen iritziak entzunez, mundu berri bat irekiko zaizu. Ez ezazu pentsa dena dakizula, egunero gauza berriak ezagutzeko aukera dago eta. Familiako norbaitek zure laguntza behar izango du datozen egunotan.



libra

Irailak 23-Urriak 22

Egoerak hobera egiten badu ere, ekaitzaren ondoren diru-kontuak nola geratu diren aztertu beharko zenuke. Aldaketa bat baino gehiago egin beharko duzu, zure onerako izango da. Jarrera aldetik, gozoago egongo zara.



scorpius

Urriak 23-Azaroak 22

Ekonomikoki egonkortasuna mantendu nahi izatekotan, neurri zorrotzak hartu behar izango dituzu. Zorrei aurre egitea ezinbestekoa izango da. Familiarengandik gertu mantentzea garrantzitsua da, depresiorako joera izango duzu eta.



sagittarius

Azaroak 23-Abenduak 21

Lasaitasuna mantendu eta kementsu jokatu behar duzu, zure gaitasuna ezbaian jarriko da. Kontrakoa pentsatzen baduzu ere, aldaketa garaian murgiltzen ari zara; onartuz gero disfrutatzen aukera izango duzu, kontra eginez gero sufrutuko duzula zalantzarik ez izan.



capricornius

Abenduak 22-Urtarrilak 20

Lan asko baduzu ere, jana eta loa erresetatu itzazu, osasun arazoei aurre hartu iezaiezu. Animoa goran mantentzeko adiskideek zeresan handia izango dute; bai garai batekoek eta baita berriek ere.



aquarius

Urtarrilak 21-Otsailak 20

Arrakasta eskuratzea edonoren pentsamenduetan ageri ohi da; nahi hori esklabo bihurtzea ordea ez da onuragarria izaten, bizitzan gauza orok bere prezioa izaten baitu. Zure esku dago.



piscis

Otsailak 21-Martxoak 20

Garai berri batean murgilduko zara; barne ezagutza eta garapen intelektuala aro berri honen muinak izango dira. Ez jarri mugak buruari, aurrerago zer ikasi nahi duzun erabakitzeko garaia da. Munduak aukera anitza eskaintzen dizkizu.



TOLOS

MERKATARIAK, OSTALARITZA eta ZERBITZUAK

EGUBERRIETAKO PROMOZIOA

1000€

1000€

1000€

3 txeke 1000€

EUROPA FM



TOLOSAKO



UDALA





mantso eta gustora egindako lanak
Ezkontzak, estudioak, jaiaritzeak eta enpresako argazkiak

**ardanaz
estudio** 
oñia kalea 4

photokafe
ELUSKAL HERRIA PLAZA